

NON DAGO GENGHIS KHAN?



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

Xi Xia inperioa (egungo Txina), 1227ko abuztuaren 18a. Genghis Khan Mongoliar Inperioaren sortzailea, erregeen erregea, hil zen, 65 urte inguru zituela, historiako inperiorik zabal eta iraunkorrenetakoa oinarriak jarri ondoren. Baina heriotzaren kausak ez daude garbi.

Kronika batzuek diote zalditik erorita hil zela, beste batzuek mendebalduko xiatarren aurkako gudu hil zutela eta, Marko Poloren arabera, "Caaju izeneko gazteluari eraso zion, geziz belaunean zauritu zuten eta zaurien ondorioz hil zen. Tamalgarria izan zen, gizon ausarta eta jakintsua baitzen".

Haren hilobia aurkituz gero, agian gehiago jakingo genuke garaiko inperiorik handiena sortu zuen gizonaren bizitzari eta, batez ere, heriotzari buruz. Bada haren omenezko mausoleo bat, baina Khan ez zuten han ehortzi. Zurrumurruak diote 1937an sobietarrek haren hilobirako bidea erakutsi zezaketen zantzuak aurkitu zituztela monasterio budista batean, edota bi arkeologo frantziar bilaketan hil zirela, hilobia mardikatuta dagoelako. Baina hilobiaren zantzurik ez dago oraindik.



Genghis Khan (c. 1162-1227) nola hil zen ez dakigu, ezta non ehortzi zuten ere. Arkeologoen ahaleginak alferrekoak izan dira orain arte, enperadoreak berak leku ezkutuan ehortzi zezaten nahi izan zuelako.

2004an Genghis Khanen jauregia aurkitu zuten, eta horrek hilobia aurkitzeko itxaropenak eta grina piztu zituen. Maury Kravitz arkeologo amateurak 40 urte eman zituen horretan, eta azken urteetan ahalegin berezia egin arren, 2012an hil zen ezer lortu gabe. Orain Kaliforniako Unibertsitateko Albert Yu-Min Lin arkeologoa ari da hilobiaren bila, teknologia berriak eta ingurua kaltetzen ez duten metodoak erabiliz. 2015eko urtarrilean proiektu bat jarri zuten martxan, espaziotik ateratako argazkien bidez hilobiaren kokalekua aurkitzea xede duena.

Kontua da Temüjin -hori zuen jatorrizko izena- Borjigin tribukoa zela eta tribu horretan hildakoak leku sekretuetan ehortzea zela ohitura. Mongoliarren erregeak ere ohitura zaharrari eutsi nahi izan zion. Kondairak dio haren gorpua Mongoliara eraman zutela, Khentii Aimag

jaioterri ingurura. Prozesioak bidean aurkitzen zuen pertsona oro hil omen zuten. Hilobia eraiki zuten esklaboak, amaitutakoan, sarraskitu omen zituzten, eta haiek hil zituzten soldaduek ere amaiera bera izan zuten. Ibai baten bidea aldatu omen zuten kokalekua are sekretuago egiteko. Ondoren zaldi batzuk ere ehortzi omen zituzten, hilobiaren zigilu modura, eta hainbat zuhaitz landatu, kokalekua hobeto ezkutatzeko asmoz.

Arkeologoak, sateliteak eta bestelako teknologia lagun, garaiko potentzia boteretsuenaren ahaleginen eta denboraren joanaren aurka ari dira borrokan, eta ez dirudi irabazteko aukera handirik dutenik. Lortuko balute, beharbada informazio pixka bat gehiago eskuratuko lukete pertsonaiaren inguruan. Bestela, Genghis Khanen azken nahia betiko errespetatuko litzateke. ■

27zapata

Astoak aspaldi jan zun kontzientzia,
berdia zalako

Imanol Epelderen bloga www.argia.eus/blogak/imanol-epelde/



Txirrindularia bokazioz, korrikalaria afizioz, irakaslea ofizioz. Literatura, hezkuntza eta osasuna jakingai.